

## Never mind Pollock

**J**ackson Pollock taularen gainean bermatzen zen, isopatik behera isurtzen zitzaion pintura iluna oihal zurian barreiatzeko. Haren obrak denboraren botereaz egina dirudi. Ez dakit martiztarrek eta errebol-taz sodomizaturiko irakurleek astirik dutenez lana bururaino eramateko. Erakunde armatuak bederen ez die gogoetarako tarterik uzten, tregua iragarri eta zenbait hilabete beranduago tipustapastean haus-ten duenean. Badakigu arazoak betikoan daudela, badakigu poesia idaztea ez dela hain zuzen borrokaren bihotz, badakigu asko eta sobera, malgu eta ezjakintzat baldin bagauzkate ere. Euria ari du Baionan eta ttant-tak leihoetan zartatzen dira, behialako Jackson Pollocken tinta malkoak bezala.

Ahantzia dugu erabat gauzen bukatzeko denbora behar dugula, denbora premiazkoa halaber bakea lortzeko, denbora gehiago orai-no naski bakerainoko urratsaren luzamenaz ohartzeko. Helburuak eta irabaztea goi-mailan jarriak dituen jendartean gara: dirua, boterea, ohorea. Ez dugu besterik nahi, erakunde armatuak barne. Politika negargarriak egituratzen dira lehia horren ardatz, zerbitzatzen dudan kide haserretuak uste duelarik estresatua delako garaileen herronketan dagoela, hau da, G8an arraila mozkorra ikusi den –salbu Frantziako telebistetan–, Sarkozy lehendakari berriak goretsiriko “goizik jeikitzen diren frantses (euskaldunen)” multzo zoriontsuan. Baina zertarako balio du azkorrian esnatzeak, Josik aipatzen dituen sonanbulo horien antze-ra, egunak dirauen hogeita lau orduetan pairatzeko? Sokratesek eska lezake zer on eta zer eder konplitu duten eguzki-argitan? Zergatik ez dute bizitza den mihise zur-bila, Jackson Pollockek zegien moldean emeki hornitzen?

Bospasei hamarkada duela lanak bere zatia baino ez zuen betetzen.



Itxaro Borda

Erra

Bastervetxea

Gaurkoan bizitza osoa itotzen du. Lanak eta batzuentzat jada ulertezin bilakatua zaigun *borro-kak*. Nehor ez da lanetik kanpo daukan denbora librean dituen debaldeko egintzetaz mintzo. Ez da zilegi. Garai batean lanak, kultura, kirola edo elkar-te-hara-honatak baimentzen zituen, lanean ari ginen fun-tsean aktibitate horietan gero ausatzeko. Mende bitxia dugu:

denbora libre daukagu denek, ez denek ordu berdinetan bistan da, eta ez dakigu zer egin libertate horrekin, batetik diskurtso ofizialak denbora libre desbalorizatzen duelako, alabaina alferkeria zitala da, eta bestetik hainbeste gizaki langabe izanez, denbora libreaz gozatzea indezentea bihurtua delako. Jackson Pollockek ez zukeen, moralki zirikatu Europa zati honetan ukaldi xeheka margorik onduko.

Gobernu nazional-liberalek dagiten eran denbora librearen ideiarekin, erakunde arma-tua borrokarako deiak inarros arazten dituelarik euskalduntasunarenarekin jostatzen da. Ematen du ez duela nehondik, euskaldunta-sun libreaz plazara gaitezen desiratzen, alde-rantziz, euskalduntasuna tatxa, bekatu, mutut-asun, gurutze, kalbario, kopeta-apal eta ahalke bedi, borrokak iraun dezan, borrokak, erakundeak berak alegia, sekula ez, atsegin, askatasun indibidual edo fribolitate soil. Atzo, Mauletik etxerakoan, Arruta zeharkatzean, eki-sartze zoragarria miretsi dut, *profundo car-mesi* bezain gorri. Nahiago dut zeruaren gorritasuna, gure-gureak izan arren aitzaki desbi-

deratuen alde omen eror litekeen odolarena baino. Pentsatu dut, era-kunde armatuak eta uhin urdinetan hedatu-riko ideologia nazional-liberalak ez zidatela Larrunen gibe-leko eguzki itzaltze erral-doiaren harrotasuna ebatsiko eta oroitu naiz Jackson Pollock-ek ez zuela egundaino tinta gorri-rik erabili.

*Never Mind.* ■

Mende bitxia dugu: denbora libre daukagu denek, ez denek ordu berdinetan bistan da, eta ez dakigu zer egin libertate horrekin, batetik diskurtso ofizialak denbora libre desbalorizatzen duelako, alabaina alferkeria zitala da, eta bestetik hainbeste gizaki langabe izanez, denbora libreaz gozatzea indezentea bihurtua delako